



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko urriaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko urriaren bostean, zortzi eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : GOICOECHEA Iñaki

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena

Deialdiaren eguna : 2021eko irailaren 30a

Afitxatze eguna : 2021eko irailaren 30a

1.ERABAKIA LEKUKO ETA HIZKUNTZA GUTITUEN EUROPAKO HITZARMENAREN IZENPETZEA

Nomenklatura : 9.1

KONDUTAN 1958ko urriaren 4eko Konstituzioa, eta bereziki 75-1. artikulua lurralde hizkuntzak
HARTURIK Frantziaren ondarearen parte direla dioena,

KONDUTAN Frantziak Hizkuntza gutituen eta lurralde hizkuntzen Europako xarta 1999ko
HARTURIK maiatzaren 7an izenpetu zuela,

KONDUTAN NOTRe legearen 104. artikulua erraten duela "lurralde hizkuntzen promozioa"
HARTURIK eskumen partekatua dela, herrien, departamenduen, eskualdeen eta estatutu bereziko kolektibitateen artean,

KONDUTAN Euskal Hirigune Elkargoak 2018ko ekainaren 23an hartu deliberoa, Iparraldean
HARTURIK euskara ofizialki aitortzen duena frantsesaren ondoan,

IKUSIZ gaur egun Alsaziako 21 kolektibitatek (eta horien artean 18 herrik) Xarta jadanik onartu dutela,

IKUSIZ Ortzaizeko herriak euskararen aldeko neurriak jadanik hartzen dituela eta Xartaren onarpenak Europako Kontseiluaren aitortzen azkarra emanen liokeela arlo honetan herriak eraman lanari,

IKUSIZ Euskara/Kultura lan taldeen ustez egoki litzatekeela Xarta onartzea,

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,

gehiengoarekin :

- **ONARTZEN DU** Hizkuntza gutituen eta lurralde hizkuntzen Europako xarta (eranskinean) euskararen promozioa garatzeko Ortzaizeko herrian
- **BAIMENTZEN DU** Auzapeza edo bere ordezkaria dokumentua izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko urriaren 5ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/10/07an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/10/07an.

